



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako

Lana

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2017/2018 ikasturtea

URTE BETEKO UMEEN

EGUNEROKO HARRERAREN BEHAKETA

Egilea: Ane Echevarria Erauzquin

Zuzendaria: Elena Herrán Izagirre

Leioan, 2018ko maiatzaren 28an.

Aurkibidea

1. Sarrera orokorra	4
1.1. Lanaren testuingurua	4
1.2. Lanaren helburu orokorra	7
2. Metodologia	8
2.1. Diseinua.....	8
2.2. Parte-hartzaileak	9
2.3. Tresnak	9
2.4. Prozedura	10
3. Emaitzak	12
4. Emaitzen eztabaida	22
5. Ondorioak.....	24
5.1. Lanarekin lotutakoa.....	24
5.2. Pertsonalak.....	27
Erreferentziak.....	29

URTE BETEKO UMEEN EGUNEROKO HARRERAREN BEHAKETA

Ane Echevarria Erauzquin

UPV/EHU

Azken urteotan gizartean gertatutako aldaketen eraginez, haurrak gero eta goizago eskolatzen dira. Familiatik eskolara ematen den aldaketa hori ez da batere prozesu erraza izaten haurrentzat eta hezitzaileek umetxoaren gaitasunak ezagutzea ezinbestekoa da umetxo eta ume txikiei egokiro lagundu ahal izateko. Gradu Amaierako Lan honen helburua eskolatzeko prozesuan egunero gertatzen den harrera modu egokian nola egiten den ezagutzea izango da. Horretarako, lanaren abiapuntua harrerako parte-hartzaile diren umeen, gurasoen eta hezitzaileen behaketa sistematikoa izango da, horietako bakoitzaren jardunbideak gainerakoengan eragina duelako. Aurrera eramandako azterketaren emaitzek harrera egoki egiteko faktore batzuk kontuan izan behar direla erakutsi digute, horiek betetzean harrera prozesua errazago bihurtuz; betiere haurra protagonista dela aintzat hartuta eta bere gaitasunak kontuan hartuz.

Harrera, umetxoa, gurasoa, hezitzaile erreferentea, behaketa sistematikoa

Como consecuencia de los cambios ocurridos en la sociedad en los últimos años, se escolariza antes a los niños y niñas. El salto que se produce de la familia a la escuela no es un proceso fácil para ellos y los educadores deben conocer las capacidades de los bebés y niños pequeños para ayudarles adecuadamente en dicho proceso. Así pues, el objetivo que persigue este Trabajo de Fin de Grado es conocer cómo se produce una correcta acogida en el proceso de escolarización. Para ello, el punto de partida del trabajo es la observación sistemática de los participantes en la acogida –niños, familias y educadores- puesto que la actuación de cada uno influye en el resto. Los resultados de esta observación nos muestran que para lograr una acogida correcta se tienen que tener en cuenta diversos factores que facilitan el proceso, siendo en todo momento el niño el protagonista y también sus capacidades.

Acogida, bebé, progenitor, educador referente, observación sistemática

As the result of the changes in the society in the last few years, children are being educated earlier at schools. The change from the family to the school is not an easy process for these children and teachers must know the capacities of their pupils so as to help in this process. So the aim of this work is to know how a good process of reception can happen. In order to get this, the work starts from the observation of each part which participates in the educational process –pupils, family and teachers-, as each one has an influence in the rest. The results has shown us that to achieve a good educational reception we must take into account some factors, being the child and his/her capacities the center of the process.

Reception, children, family, reference teacher, systematic observation

1. Sarrera orokorra

1.1. Lanaren testuingurua

Azken urteotan gizartean eman diren aldaketak direla eta, gurasoek gero eta arinago eskolatu behar izaten dituzte haurrak. Egoera honek -zerbitzu hori eskainiko duen zentroen agerpena eragin du. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), eskolatze goiztiarraren (0-3 urte) tasa %50aren ingurukoa da (Herrán, Orejudo, Martínez de Morentin & Ordeñana, 2014)- eta bizitzako lehen urteek garapenean duten garrantzia kontuan hartuz, egiten den jarduera guztien inguruko hausnarketa sakona egitea beharrezkoa da, ahalik eta heziketa egokiena eskaintzeko asmotan. Heziketa egokia eskaintzeko bidean, Pikler-Lóczy pedagogiak ereduaren ikuspegitik, haurren autonomia eta arduratuko diren hezitzaileen jarrera elkarri kontuan hartu behar dira.

Haur eskolara sartzeko umeen garapen bidea luzea izango bada ere, umetxoek eta ume txikiek badituzte izugarriko gaitasun batzuk. Wallonen arabera (1879-1962) haurren hasierako gaitasunak fisikoak izango dira batez ere, gorputzarekin harreman zuzena dutenak eta apurka-apurka gaitasun psikikoak agertuko dira; hala nola adierazpen emozionalak. Haurren hasierako mugimendua kanporatutako emozioa da, edo helduok behintzat horrela, adierazpena bezala, ulertuko dugu, mugimendu horrek komunikazio-funtzioa betez. Hor banakako funtzio berrien arteko egiturak eraikiko dira eta jardueraren izaera gero eta konplexuagoa bihurtuko da testuinguruaren mendean (Herrán, 2018). Haurren jaiotzetiko gaitasunak, garapenerako; hau da, aldi berean, haziera, heldutasuna eta ikasketetarako joera eragingo dute, baina definitu, antolatu eta hierarkizatu daitezkeen baldintza batzuk bete behar dira. Ildo hau partekatzen duen Pikler hezkuntza eredu, oinarriko lau printzipiok egituratzen dute (David eta Appel, 1986; Falk, 1997, 2008; Herrán, 2014):

1. Umetxoak edo ume txikiaren jarduera autonomo proaktiboa oso baliotsua da.
2. Helduaren eta umearen arteko harreman egonkortasunak, eta batez ere, ume bakoitzak beraz arduratuko den helduarekin duen lehentasunezko harremanak oinarri emozional sendoa eskaintzen diote.

3. Garapen-mailaren arabera umeak etengabeko laguntza behar du, bere buruarekiko eta inguruarekiko kontzientzia, pixkanaka-pixkanaka, hartzen joan dadin.
4. Aipaturiko printzipioak ezartzearen ondorioz, haurrak osasun-egoera fisiko ona izango du.

Haurra era autonomo batean jarduteko gai da, bere garapen mailaren araberako ekintzak egiteko gai izango da bere motrizitatearen jabetzeari dagokionean, edota inguratzen dion eta bere ezagutza garatzen duen esperientzia aktiboak jasotzeari dagokionean (Tardos, 1992). Sehaskako haurrak, baldintza egokietan, bere buruaz okupatuta, bere eskuaz, bere mugimenduez, inguratzen duen horretaz, ekintza jarduerak moldatzen ditu uneoro: ingurua begiratzen du, bere mugimenduan murgiltzen da, eskuan duen objektuari arreta eskaintzen dio. Era berean, bere garapen bilakaeraren arabera jarduerak moldatzen ditu: erraztasunez egindako mugimendu eta keinuak oraindik ikasten ari den beste batzuekin tartekatzen ditu. Beraz, barneko ahaleginak norberarengatik neurtuta daudela esan daiteke. Bere ardurapean egindako ekintzen bidez, haurrak behatzen, jarduten, gorputza era egoki eta ergonomikoan erabiltzen, ekintzen emaitza aurreratzen, bere aukeren limiteak ezagutzen, bere mugimenduak aldatzen eta abarrez ikasten du; hau da, *ikasten ikasten* du (Tardos, 1992). Beraz, haurra subjektu aktiboa dela ulertzen da: munduari eta beraren menpeko den inguru sozialari irekita dago, ekimena, emozio, sentrazio, afektu, mugimendu, beldur eta antsietatea du eta harremanak ezartzeko gai da (Chokler, 2006).

Eskolatzeko unean ordura arte babesa eman dion etxeko erreferentzia desagertuko zaio une batez. Beraz, egoera berria ezagutu egokitzeko denbora bat behar izango du. Egokitzapena aldi intentsibo batekin hasten bada ere, prozesu horrek luze ematen du haur bakoitzaren kasuan eta zaila izango da amaiera ezartzea. Hala ere, badira prozesua erraztu eta pertsona guztientzat onuragarria izan dela jakiteko adierazle batzuk, hala nola, haurra eskolako espazioan eta hezitzaileekin seguru eta eroso dagoela igartzea, zenbait aldaketa eginda ere lasai jarraitzen duela sumatzea, jolas egiteko ekimena erakustea, eskolako gainerako hurrekin eta helduekin gogo onez

harremanetan sartzea eta zer nahi duen eta zer behar duen beldur gabe adieraztea (Febrer & Jansà, 2011). Hein horretan, hezitzailea izango da banaketa horretaz arduraduna. Une horiek zaindu beharko ditu kontuan izanik prozesu baten parte izango direla. Pixkanaka-pixkanaka haurrak banaketaren esperientzia biziko du eta jabetuko da hezitzailea bere beharrianak asetzeko gai izango dela (Boden, 2017).

Prozesu horretan eraikiko den hezitzailearekiko lotura bana-banako arreta-uneetan eraikiko da. Beraz, garrantzitsua izango da hurrekiko une gertukoak aurretiaz prestatzea eta une horiek zaintzea (Febrer & Jansà, 2011).

Prozesu guzti horretako partaide bakarra ez da haurra, beste hainbat subjektu ere kontuan hartu beharko dira; hain zuzen ere familiak eta hezitzaile *erreferenteak*. Kállók (2017) aipatzen duen bezala, hezitzaile erreferentea da “la que es principalmente responsable del niño, entiende bien su tarea, será ella quien mejor conocerá a los niños que se le confían” (19.or).

Haurra gelara sartzen denean familia ere prozesuaren parte bihurtzen da (Tardos, 2014). Honek arazoak dakartza, familia bakoitzak bere ohiturak dituelako; ondorioz, bakoitza ezagutu beharko da, behar den moduan errespetatzeko. Hezitzaileak argi izan beharko du ezingo duela umearen ama, aita edo tutorearekiko maitasunarekin eta euren bizietan dituzten lekuarekin lehiatu. Beraz, sostengu-harreman lagungarri bat bilatu beharko du, konfiantzazkoa, gurasoen harremana osatuko duena. Gomendagarria izango da heldu eta gurasoen arteko harremana egokia izatea, haurrak ondoriozta dezan bere erreferente nagusiak hura preziatzen badu, bera ere fidatu daitekeela (Boden, 2017). Aipatutako erlazioa eta hezitzaileak eskainitako zaintza egokiak badira, hezitzailea haurraren gertuko pertsona bihurtuko da.

Prozesu guzti honetan ematen den une garrantzitsuenetariko bat goizeko harrera izaten da, eguneko lehen momentu horrek gainerakoak baldintzatuko duelako. Harluxet Hitzegi Entziklopedikoak (2010) harrera honela definitzen du: “Norbaitek norbait, bere etxean, lagunartean, et abarretan hartzea, ostatu, laguntza, babesa emateko”. Hori kontuan izanik, ondoriozta dezakegu, haurrari goizean egiten zaion harrerak, guraso edo heldu ezagunarengandik banatzerakoan, toki ezagun eta seguru batean geldituko dela, bere izaera onartuko duena eta bere garapenean lagunduko

duena. Eskola eremura eramanda, honela definituko liteke: goizero, eskolara senitartekoak zein tutoreak ekarrita, hezitzaileak haurrari egiten dion hartzea, errespetua, babesa eta segurtasuna transmititzen dizkiona eta eskolara igarobidea errazten duena. Eguneko lehen uneetan gertatzen dela kontuan izanik, egun guztian zehar eragina izango du. Ondorioz, ondo egindako harrera batek haurraren egunari aurre egiten lagunduko dio. Harrera egoki eta atsegina egitea ezinbesteko izango da, eskolatze goiztiarrak haurrengan eragiten duen karga eta apurketa ahalik eta modu egokienean gertatzeko lehen pausua baita.

Harrera bat gertatzen denean, haurra eta guraso edo heldu ezagunaren artean banaketa bat egoten da. Sarritan helduak izaten direla banaketaren aurrean arazoak izaten dituztenak eta sentimendu horiek haurrarekin lotura izanik, haurrak ere sufrimendu hori pairatzen du (Balaban, 2000). Hortaz, banaketa unea zenbat eta gehiago luzatu, helduak gehiago sufrirituz, haurraren sufrimendua ere luzeagoa izango da. Izan ere, denbora asko pasatzeak agurra luzatuz, helduak haurrenganako duen etengabeko menpekotasuna adieraz dezake. Honek, haurrak segurtasun eta zalantza gehiago izatea eragin dezake, etorkizun batean pazientzia gutxi duten pertsonak bilakatzeko aukera izanik (Borbely, 2016).

Kontuan izan beharko da, ama-umea harremanean, ez direla garrantzitsuak soilik izango batera dauden momentuak, baita ez daudenak ere. Izan ere, banatuta pasatzen dituzten une hauek, banaketa adierazten badute ere, haurrarentzako ez da amaren banaketa erreala izango. Haurrak amaren irudia buruan izango du eta bertan egon ez arren, distantzia batean entzun eta ikusten duten momentuak bezala hartuko dira (Borbely, 2016).

1.2. Lanaren helburu orokorra

Harreraren garrantzia aztertzeko asmoz behaketa sistematiko bat jarri da martxan. Goizeko harrera era pertsonal eta zuzenean egiten den testuinguruaren azterketa egingo da hurbiletik. Testuinguru horren azterketarekin, eguna aurrera eramateko garrantzitsua den une horrek bete beharreko irizpide batzuk aurkitzea lortu nahi da. Pikler-Lóczy metodologia proposatzen dituen ideiak kontuan hartzen dituen

hezkuntza- errealitatea hartu da oinarritzat; beraz, eredu horren araberako harrera aztertuko da.

Lanaren helburu nagusia, haur eskola bateko harreraren azterketa egoki bat nola gauzatzen den aztertzea da. Hori lortzeko, harrera uneetan parte-hartzaileak kontuan hartzea beharrezkoa izango da; hala nola, haurrak, gurasoak edo tutoreak eta hezitzaileak. Horrela, hezitzailearen zereginean zentratu nahi bada ere, subjektu bakoitza aztertuko da, bakoitzak egiten duena behatuz, horietako bakoitzaren jarduerak eragingo dutelako gainerakoengan. Era honetan, lanaren helburu zehatzetariko bat eragile horiek banaka aztertzea izango da. Hau da, eragile bakoitzak harrera prozesuan hartzen duen papera kontuan izanik, bakoitzaren jarduerak behatu nahi dira, haurraren sorrarazi dezakeen eragina ondorioztatu nahian. Prozesuko partaideak hainbat badira ere, haurra da protagonista, eta bere ongizatea lortze aldera, guraso edo tutore eta hezitzailearen arteko jardunbide egokia gomendatzen da.

Eragile bakoitza bere aldetik aztertuta, bakoitzaren erabaki eta jarrerak gelan nola eragiten duten ere behatu nahi da; hots, harrera egiteko erak gelan sortzen duen egoera ere aztertzea helburu izango da. Izan ere, harrera modu individualizatuan egiten bada ere, harrera unean gelan beste haur batzuk egongo dira eta guzitzen eragingo du haur bat gelara sartzeak.

2. Metodologia

Behaketan Oinarritutako Metodologia (Anguera, 2003) erabiliko da, hau da, egoera erreal bat, harreretako haur, heldu eta hezitzaileen jardura, grabatu, sistematikoki erregistratu eta aztertu behar da metodologia honen betekizunak jarraituz. Erabiliko den parametroa oinarritzakoa edo lehen mailako izango da, maiztasuna hain zuzen.

2.1. Diseinua

Metodologia honen diseinuen sailkapenen arabera (Anguera, 2003, 2010), diseinu *nomotetiko* bat aurrera eramango da, hainbat ume, heldu eta hezitzailearen jarduerak

aztertuko direlako. *Multidimentsionala* izango da aztergai asko kontuan hartzen direlako eta *segimenduzkoa* izango da, denboran zehar egingo baita.

Jarraian aurkezten den lanak, behaketan oinarritutako metodologia jarraitzen du, behaketa baita ikerketaren objektua den eguneroko harreraren berri eman dezakeen bakarra. Behaketa Haurreskola Partzuergoko haurreskola batean egin da bertako harrera bat aztertu delarik. Hain zuzen, banakako harrera egiten den testuinguru bat hautatu da bertan hezitzailearen jarduna aztertzeko. Horretarako, behaketak hiru astetan zehar -konkretuki hamabi egunetan zehar- gauzatu dira.

2.2. Parte-hartzaileak

Ikerketa burutu ahal izateko, Haurreskola Partzuergoko Basurtuko haurreskolako urte bateko haur talde bat eta bere hezitzaileak behatu dira. Behaketak egin ahal izateko, haurren gurasoen eta hezitzaileen baimenak jaso dira, baita Partzuergoarena ere Datu Pertsonalen Babeserako Legea (15/1999 Lege Organikoa, LOPD) errespetatuz.

Grabaketak, hasiera batean bi hezitzaile eta hamaika umek osatzen zuten taldearekin egitekoak ziren, baina helburuak bete eta ahalik eta informazio esanguratsu eta zehatzena lortu nahian, bi hezitzaile eta hamasei umerekin egin izan dira. Parte hartu dute baita, haurrarekin gelara sartu diren helduek, hauek gehienetan gurasoak izanik, baina noiz edo noiz zaintzaile eta aitona-amonak ere agertu dira.

2.3. Tresnak

Lana burutzeko erabilitako tresna nagusiak *grabaketak* izan dira. Konkretuki, egunero, hezitzaile, guraso eta haurren arteko harrerak grabatu izan dira, egun bakoitzean harrera kopurua desberdina izanik. Behin grabaketak izanez gero, bertan agertzen diren partaide bakoitzak burututako jarduerak apuntatu eta guzti horiek *behaketa taula* batean ordenatu, taula hau bigarren tresna nagusia delarik. Umea irizpide nagusizat hartuta eta bere harreraren beste partaideek berarekiko edo testuinguruarekiko egindako jarduera guztiekin taula sortu da egunez egun.

Gradu Amaierako Lana. Bilboko Hezkuntza Fakultatea

1. taula. *Behaketa taula.*

X. UMEAK	1. eguna	2. eguna	3. eguna	4. eguna	5. eguna	6. eguna	7. eguna	8. eguna	9. eguna	10. eguna	11. eguna	12. eguna
Atxa ireki												
Agurtu												
Hezitzailea												
Heldia erabun												
Galderak egin												
Umea bazotan hartu												
Heldiaren agurak												
-Aldoa												
-Normala												
-Luzea												
Bai irakurritu den aurteratu												
Umearen ean agur wateko												
Berri barruan egonda												
Hezitzailearekiko gertutasuna												
-Kontaktua												
-Hurbiltasuna												
-Urruntasuna												
Beste harrera baten oneratu behar												
-Aurreko umea gertu izaten jarraitzen du												
-Aurreko umea toki berran gertu da												
Haurra luze galditzen da hezitzailearengandik gertu edo urritako baten												

Legenda

- Hezitzailea
- Haurra edo/eta hezitzailea
- Senitartekoa
- Hezitzailea eta senitartekoa
- Haurra

Ondoren burutu beharreko laginaren sistematizazio lanerako hainbeste *taula* osotu dira, guztien gertaera apuntatuz, ondoren, bakoitzaren *maiztasuna* ateratzeko. Lehenengo eta behin, taula orokor bat sortu da, haur bakoitzari zenbat harrera egin zaizkion jakiteko (2. Taula).

2. Taula. *Egindako grabaketa guztien datu orokorrak.*

egunak/ umeak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	GUZTIRA
1		bai	bai	bai	bai	bai		bai	bai								7
2		bai	bai	bai	bai	bai	bai	bai		bai							8
3	bai	bai	bai	bai	bai	bai	bai			bai	bai	bai	bai				12
4			bai	bai	bai	bai		bai						bai	bai	bai	8
5	bai		bai	bai	bai	bai	bai	bai	bai	bai			bai	bai	bai	bai	13
6	bai	bai	bai	bai	bai	bai	bai					bai	bai		bai	bai	11
7	bai	bai	bai	bai	bai		bai	bai	bai			bai			bai	bai	11
8	bai		bai	bai	bai	bai	bai	bai	bai	bai			bai		bai	bai	12
9	bai		bai	bai	bai	bai	bai	bai	bai								8
10	bai		bai		bai	bai	bai		bai	bai	bai		bai	bai	bai	bai	12
11	bai	bai	bai		bai	bai	bai	bai	bai		bai				bai	bai	11
12	bai	bai	bai				bai	bai			bai		bai		bai	bai	9
		9	7	12	9	11	10	10	9	7	5	4	3	6	4	8	8
																	122

Amaitzeko, harreretako hiru partaideen arabera hiru grafiko *-partaideen grafikoak-* egin dira, partaide bakoitzaren jardura ezagutzeko eta ondoren harremanetan jartzeko.

2.4. Prozedura

Ikerketa lan honen abiapuntua egoera enpiriko bat izan dela kontuan izanik, prozedura zehatza jarraitu behar izan da. Lehendabizi, haurreskolako eguneroko harrerak aztertzeko asmotan, hiru astetan zehar egunero bi ordu inguruz Bilboko Basurtuko haurreskolako urte bateko gelako sarrerak grabatu dira.

Haurreskolara sartzen zen edozein haurraren harrera grabatzen zen, ahalik eta informazio gehien lortzeko asmoarekin, baina betiere finkatutako bi hezitzailearen eskutik harrera egiten zenean. Egunak aurrera igaro eta grabaketak egin ahala, haur batzuen lagina oso eskasa zen; izan ere, haur batzuk ez ziren aztertu beharreko hezitzailearen taldekoak eta sarrera ordua librea izanik, sarritan harrera zegokion hezitzaileak egiten zion. Hortaz, hainbat grabaketa egin diren arren, antolaketa lana errazteko eta nahikoa izango delakoan, 16 umeko lagina soilik hartu da. Hala ere, 16 ume horien lagina ez da osoa kasu guztietan. Gehienetan harrera gelan egiten zen arren, pasabidea eta sarrerako espazioa asko erabiltzen zuten eta harrera asko bertan gertatzen ziren gelan beste harrera bat gertatu bitartean. Ondorioz, zenbaitetan berandu iritsi izan naiz aztertu beharreko irizpide guztiak grabaketan izateko aukera galduz. Gainera, zenbaitetan, lagin txikiko haurrak aztertu dira, haurraren nondik norakoak ulertzeko nahikoak ez izan arren, joera nagusiak aztertzekeo baliagarriak izan direlako.

Behin lagina izanez gero, datuak aztertzerako orduan hiru irizpide nagusi izan dira kontuan: *hezitzailea*, *haurra* eta *heldua*, harrera hiru horien arabera era batean edo bestean ematen delako. Horietako bakoitza bere aldetik aztertu da egun bakoitzean zehaztutako taulak betez. Taula horietan, harrerak bi hezitzailearen eskutik egin izateko kasuetan, bigarren hezitzailearen harrera eguna gorritz adierazi da.

Taula guztiak bete ondoren, grafikoak egin dira -hiru taula bakoitzeko- harrerako parte hartzaile bakoitzaren emaitzak bateratzeko. Hezitzaile biek harrera egin dieten kasuetan, grafikoetan irizpide bakoitzeko bi zutabe ageri dira, hezitzaile bakoitzari lotutakoak. Grafikoak izanda, ume bakoitzean zentratuz hiru eragileak aztertu dira ahalik eta objektiboki. Emaitza guztiak izanda, eragile bakoitzaren datu orokorrak atera dira; hau da, hezitzailearen jarduna, heldu guztiek izaten duten jarrera eta haurren ekintzak ere aztertu dira. Datu horiek bateratuz ondorioetara heldu da.

3. Emaitzak

Haur bakoitzarekin erlazionatutako behaketa guztiak izan ondoren, haur bakoitzarekin erlazionatutako taula bat sortu da (3. taula), aipatu bezala, harrerako hiru subjektuen inguruko datuak aztertzeko balio izan duena. Taula horretan, haurrari harrera egin zaion egun bakoitzean adierazitako irizpideak bete diren adierazi da. Adibide modura 1. umearekin jarraian ikus daiteke betetako taula eta gainerako haur guztien taulak eranskinetan.

3. Taula. *Lehenengo umearen erregistroa.*


1. UMEA	1. eguna	2. eguna	3. eguna	4. eguna	5. eguna	6. eguna	7. eguna	8. eguna	9. eguna	10. eguna	11. eguna	12. eguna
Atea ireki								+				
Agurtu			+		+	+	+	+	+	+	+	+
Hurbidu			+		+	+	+	+	+	+	+	+
Heldua entzun												
Galderak egin			+		+	+	+	+	+	+	+	+
Umea besotan hartu			+			+	+	+	+	+	+	+
Helduaran agurra:												
- Motela			-		-	-	-	-	-	-	-	-
- Normala			-		-	-	-	-	-	-	-	-
- Luzea			-		-	-	-	-	-	-	-	-
Bila nor etorriko den aurreratu						+			+	+		
Umeari esan agur esateko			+		+	+	+	+	+			+
Behin barruan egonda hezitzailearekiko gertutasuna:												
- Kontakua			-		-	-	-	-	-	-	-	-
- Hurbiltasuna			-		-	-	-	-	-	-	-	-
- Urruntasuna			-		-	-	-	-	-	-	-	-
Beste harrera batean zentratu behar												
- Aurreko umea gertu izaten jarraitzen du			-			-	-			-	-	-
- Aurreko umea toki batean gelditu da			-			-	-			-	-	-
Haurra luzaro gelditzen da hezitzailearengandik gertu edo utzitako tokian			+		+	+	+	+	+	+	+	+

Adibide honetan, bederatzi harrera oso grabatu ahal izan zaizkio umeari, guztiak hezitzaile bakarrak egin dizkiolarik. Irizpide batzuk beti bete direla ikus daiteke, beste batzuk ordea, gehienetan. Haur guztiarekin gauza bera eginik, erregistro taula horietan jasotako datuak grafikoetara pasatzea izan da hurrengo urratsa, nola burutu den argiago jakin ahal izateko. Horretarako, kontuan hartu da haur bakoitzari egindako harrera kopurua, hamabi egun grabatu badira ere, egun guztietan ezin izan direlako haur guztiak grabatu. Horrela, subjektu bakoitzari dagozkion alderdiak zehaztu eta grafiko bana atera da.

Hau da, haur bakoitzari buruzko taulaz gain, hiru grafiko –partaideen bestekoak- atera dira eta horrekin ume bakoitzaren hamabi egunetan izandako harreretan batzuk eta


bestea egindakoa laburtu da. 1. umearekin lortutako emaitzen taula eta grafikoak jaso dira orain arte, eta esan bezala, gainerako umetxoenak eranskinetan agertzen dira.

1. Umea: Behatutako bederatzi egunetan zehar, hezitzaileak oso gutxitan ireki du atea (%11). Hezitzaileak (1. grafikoa) beti erabili ditu kortesiazko arauak eta helduarekin ere beti mantendu du elkarrizketa. Gehienetan hezitzaileak haurra besotan hartu behar izan du senitartekoak alde egin ahal izateko (%89). Gutxitan aurreratu dio haurrari bila nor etorriko zaion (%33), baina askotan esan dio umeari, helduari agur esateko (%78).



1. grafikoa. Lehenengo umearen datuak: Hezitzailea.


Haurra laguntzen zetorren helduari dagokionez (2. grafikoa), %78an denbora aldetik agur normala egin du eta gainerakoetan (%22) agur azkarra. Senitartekoak ez dio inoiz aurreratu haurrari bila nor etorriko zaion.



2. grafikoa. Lehenengo umearen datuak: Heldua.

Haurrari dagokionez (3. grafikoa), ez da hezitzailearengana hurbildu. Kasu guztietan, hezitzailearenganako kontaktua behar izan du erreferentziako heldua desagertu denean. Zenbait kasutan (%67), beste harrera bat atenditu behar izan du helduak, kasu

batzuetan haurra helduarengandik gertu mantenduz (%33) eta beste batzuetan, hezitzaileak utzitako lekuan geldituz (%67). Hezitzailearen kontaktua bilatzeaz gain, haurra beti geratzen da luzarorako toki batean.



3. grafikoa. Lehenengo umearen datuak: Haurra.

2. Umea: Zazpi egunetan egindako behaketetan oinarrituz, 1 hezitzailea izan da haurrari beti harrera egin diona (1. Eranskina). Honek, oso gutxitan ireki behar izan dio atea (%29). Hezitzaileak beti erabili ditu kortesiazko arauak eta beti mantendu du elkarrizketa helduarekin. Hezitzailea ez da beti haurrarengana hurbildu, zenbaitetan haurra hurbildu baitzaio. Inoiz ez du haurra besotan hartu behar izan. Oso gutxitan aurreratu dio nor etorriko zaion bila (%14) eta hainbatetan esan dio umeari agur egiteko (%71). Haurra laguntzen zetorren helduari dagokionez, honek, gehienetan egindako agurra normala izan da (%86). Ia gehienetan aurreratu dio nor etorriko zaion bila (%71). Haurrari dagokionez, zenbaitetan hezitzailearengana bera hurbildu da eta honekiko kontaktua mantendu du.

3. Umea: Ume honi dagozkion behaketak, bi hezitzailearen eskutik eginak izan dira hamabi egunetan (2. Eranskina). Bi hezitzaile hauek ez diote inoiz atea ireki, baina beti agurtu dute. 1. hezitzailea beti hurbildu da haurrarengana, baina 2. hezitzailea berriz ez. Hezitzaile biek elkarrizketa mantendu dute helduarekin. Beti hartu behar izan dute besoetan haurra eta inoiz ez diote aurreratu nor etorriko zaion bila. 1 hezitzaileak kasu batzuetan (%40) umeari agur esateko esan dio, 2 hezitzaileak, ordea, ez dio inoiz esan. Haurrarekin datorren helduari dagokionez, kasu gehienetan helduak agur azkarra egin du edozein hezitzaile egonda. 1. hezitzailearekin egonda inoiz ez dio aurreratu bila nor etorriko den. 2. hezitzailea egon denean berriz, %14ko kasuan aurreratu dio. Haurrak

hartzen duen jarrerari dagokionez, hezitzaileekiko kontaktua beti mantentzen du eta luzaroan mantentzen da toki batean. Zenbaitetan, beste harrera bat gertatu denean haurra beti gelditu da toki batean.

4. Umea: Ume honi egindako behaketetan, bi hezitzailek egindako harrerak ikus daitezke bederatzi egunetan zehar (3. Eranskina). Bi hezitzaileek ez dute ateaireki, baina beti elkar agurtu dute. 1. hezitzailea ez da beti hurbildu (%38), ez du beti heldua entzun (%63) eta ez dizkio beti galderak egin (%38). 2. hezitzailea berriz, beti hurbildu da eta heldua entzun du, baina inoiz ez dio galderarik egin. Honek beti hartu du haurra besoetan; besteak ostera, oso gutxitan (%13). Ez diote inoiz bila nor etorriko den aurreratu, eta lehenengoak zenbaitetan soilik esan dio umeari agur egiteko (%50). Helduari dagokionez, beti egin du agur azkarra, edozein hezitzaile egonda. Haurrari ez dio inoiz aurreratu bila nor etorriko zaion. Haurrari dagokionez, zenbaitetan 1 hezitzailearengana hurbildu da (%25). Behin gela barruan sartuta, kontaktua eta hurbiltasuna mantendu ditu gehienbat, kasu guztietan toki batean luzaroan mantenduz.

5. Umea: Haur honi bi hezitzailek egin dizkiote harrerak behaketan egin diren hamaika egunetan zehar (4. Eranskina). Hezitzaile hauetariko batek ere ez dio inoiz atea zabaldu behar izan, Hezitzaile biek kasu guztietan agurtu dute haurra eta heldua, baina beti ez dira hurbildu, 2 hezitzaileak beti entzun du heldua, galderak egin dizkio, haurra besotan hartu du eta umeari esan dio agur egiteko. Lehenengo hezitzaileak berriz, ezin izan du beti heldua entzun ez eta galderarik egin (%89). Gehienetan umea besotan hartu behar izan du (%67) eta era berdinean esan dio haurrari agur egiteko. Hezitzaile honek oso gutxitan aurreratu dio umeari bila nor etorriko zaion (%11), eta bigarrenak ez du inoiz egin. Helduari dagokionez, agurra normala izan da beti. Haurrari dagokionez, hau ez da inoiz hurbildu hezitzaileengana. 1. hezitzailearekiko hurbiltasuna eta urruntasuna mantendu du ehuneko berdinean (%50 eta %50), eta 2. hezitzailearekiko berriz urruntasuna kasu guztietan.

6. Umea: Haur honi hamar grabaketa egun egin zaizkio, bi hezitzaileen aldetik harrerak aztertu ahal izan direlarik (5. Eranskina). 1. hezitzaileak beti agurtu, heldua entzun eta galderak egin ditu. 2. hezitzaileak berriz, beti heldua entzun eta agurtu duen arren, ez

du beti agurtu (%80). 1. hezitzaileak ez du inoiz umea besotan-hartu, %25ko kasuetan aurreratu dio haurrari bila nor etorriko zaion eta egindako behaketan erdietan esan dio umeari agur egiteko. 2. hezitzaileak oso gutxitan hartu behar izan du haurra besotan (%20), ez dio inoiz aurreratu bila nor etorriko zaion eta kasu erdietan esan dio umeari agur egiteko. Helduari dagokionean, agur luzea nabarmentzen da. Helduak hainbatetan esan dio haurrari bila nor etorriko zaion; hain zuzen, 1. hezitzailea egon denean kasu erdietan (%50) eta 2. hezitzailea egon denean %33an. Helduak beti mantendu du elkarrizketa hezitzailearekin. Haurrari dagokionez, ez da inoiz hezitzaileengana hurbildu. Heldua desagertu denean, hezitzailearekiko urruntasuna nabarmendu izan da (%75 eta %67 hezitzaile bakoitzari dagokionean). Oso gutxitan egon da luzaroan toki batean; hain zuzen 2. hezitzaileak harrera egin dion %33ko kasuetan.

7. Umea: Haur honi bi hezitzaileek egin izan dizkiote harrerak hamar egunetan zehar (6. Eranskina). Hezitzaileek beti agurtu, heldua entzun eta galderak egin dituzte. 1. hezitzailea gehienetan hurbildu da (%88) eta 2. hezitzailea beti (%100). 1. hezitzaileak gutxitan hartu du umea besotan (%38) eta 2. hezitzaileak behaketak egin izan diren kasu erdietan (%50). 1. hezitzaileak oso gutxitan esan dio bila nor etorriko zaion (%13) eta bi hezitzaileak inoiz. Bi hezitzaileek, behaketak egindako kasu erdietan esan diote haurrari agur egiteko. Helduari dagokionean, 1. hezitzailea egon den gehienetan helduak agur luzea egin du (%50). 2. hezitzailea egon den guztietan berriz, agurra luzea izan da. helduak ez dio inoiz aurreratu umeari bila noiz etorriko zaion. Haurrari dagokionean, ez da inoiz hezitzaileengana hurbildu. Heldua desagertu denean, 1. hezitzailearekiko proportzio berean mantendu du hurbiltasuna eta urruntasuna (%38), gainerakoetan berriz, kontaktua (%25). 2. hezitzailearekiko hurbiltasuna eta urruntasuna mantendu du neurri berean (%50). Kasu gutxitan suertatu da beste harrera bat (%25) eta kasu horietako erdietan hezitzaileak haurra gertu izaten jarraitu du. Haurra oso gutxitan egon da luzaroan toki batean (%13), 1. hezitzaileak harrera egin dionean aztertu ahal izan dira azken bi alderdi hauek.

8. Umea: Haur honi bi hezitzaileek egin dizkiote harrerak behaketak egin diren bederatzi egunetan zehar (7. Eranskina). Ez dute inoiz aterik ireki, baina beti agurtu eta heldua entzun dute. Ez dira beti haurraren hurbildu, sarritan haurra izan baita

beraiengana hurbildu dena (1. hezitzailearengana %60 eta bigarrenarengana %50). 1. hezitzaileak beti egin dizkio galderak eta 2. hezitzaileak, kasu gehienetan (%75). Haurra ez dute inoiz besotan hartu behar izan heldua alde egiteko, baina bai biberioia emateko, ume hau gosaldu gabe etortzen baitzen. Haurrarekin datorren helduari dagokionean, kasu gehienetan agurra normala izan da. Helduak ez dio inoiz aurreratu haurrari bila nor etorriko zaion, eta aipatu bezala hezitzaileekin sarri askotan mantendu du elkarrizketa. Haurrari dagokionean, hasieran aipatu bezala, haurra askotan hurbildu da hezitzaileengana, hurbiltasunaren arrazoia biberioia ematearena izanik. Hortaz, biberioia emateko kontaktua mantendu du beti haurrak. Biberioia eman ondoren, haurrak gehienetan urruntasuna mantendu du.

9. Umea: Haur honi zazpi egunetako behaketak egin zaizkio, bi hezitzailearen eskutik (8. Eranskina). Inoiz ez dio hezitzaileak atea ireki behar izan, baina beti agurtu, heldua entzun eta galderak egin dituzte. 1. hezitzailea ez da inoiz hurbildu, 2. hezitzailea berriz, hainbatetan (%83). 1. hezitzaileak beti hartu du umea besotan, bila nor etorriko den aurreratu du eta umeari esan dio agur egiteko. 2. hezitzaileak berriz, ez du beti hori bete (%17, %20 eta %80 hurrenez hurren). Haurrarekin datorren helduari dagokionean, 1. hezitzailea egon den guztietan agurra luzea izan da, eta 2. hezitzailea egon denean normala eta luzea neurri berean (%50 eta %50). 1. hezitzailea egon denean helduak beti aurreratu dio umeari bila nor etorriko zaion, eta 2. hezitzailea egon denean, oso kasu gutxitan (%20). Haurrari dagokionean, ez da inoiz hezitzaileengana hurbildu. 1. hezitzailearekiko hurbiltasuna mantendu du beti heldua desagertu denean. 2. hezitzailea egon denean, urruntasuna nagusitu izan da gehien (%50).

10. Umea: Haur honi bi hezitzailek egin dizkiote harrerak eta bost egunetakoak behatu ahal izan dira (9. Eranskina). Kasu guztietan hezitzaileek agurtu, hurbildu, heldua entzun, galderak egin eta umea besotan hartu dute. 1. hezitzaileak kasu gutxitan aurreratu dio umeari bila nor etorriko den (%25), baita umeari esan agur egiteko (%25). 2. hezitzaileak ez du inoiz horrelakorik egin. Helduari dagokionean, 1. hezitzaileak harrera egin duenean helduak beti egin izan du agur azkarra. 2. hezitzailea egon denean ordea, agurra normala izan da beti. Helduak ez dio inoiz aurreratu haurrari bila nor etorriko zaion. Haurrari dagokionean, ez da inoiz hurbildu

hezitzailearengana. 1. hezitzaileak harrera egitean, berarekiko kontaktua mantendu du beti, 2. hezitzailearekin, ordea, beti mantendu du hurbiltasuna. Haurra 1. hezitzailearekin sarritan egon da luzaroan toki batean (%75) eta 2. hezitzailearekin, beti (%100).

11. Umea: Haur honi 1. hezitzaileak soilik egin izan dizkio harrerak behaketak egindako lau egunetan (10. Eranskina). Hezitzaileak ez dio inoiz atea ireki, ostera, beti agurtu, heldua entzun eta galderak egin ditu helduarekin elkarrizketa mantenduz. Kasu gehienetan hurbildu da haurarengana (%75) eta oso gutxitan hartu du haurra besotan (%25). Egindako behaketen kasu erdietan bila nor etorriko den aurreratu dio eta oso gutxitan esan dio umeari agur egiteko (%25). Helduari dagokionean, kasu gehienetan agurra luzea izan da (%75) eta ez dio haurrari inoiz esan bila nor etorriko zaion. Haurrari dagokionean, ez da inoiz helduarengana hurbildu. Helduak gelatik alde egin duen kasu gehienetan hezitzailearenganako hurbiltasuna mantendu du (%75). Kasu oso gutxitan suertatu da beste harrera bat (%25) eta gertatu den guztietan toki finko batean gelditu da.

12. Umea: Haur honi hiru egunetako harrera grabatu eta aztertu ahal izan zaio bi hezitzaileen eskutik (11. Eranskina). Hezitzaileek ez dute inoiz aterik ireki, baina beti agurtu, heldua entzun eta galderak egin dituzte. 1. hezitzailea sarritan hurbildu izan da (%50), 2. hezitzailea inoiz hurbildu ez denean. 1. hezitzaileak beti hartu du umea besotan, beti aurreratu dio bila nor etorriko zaion eta kasu erdietan esan dio umeari agur egiteko. 2. hezitzaileak berriz, ez du inoiz besotan hartu ezta bila nor etorriko zaion aurreratu, baina beti esan dio umeari agur egiteko. Helduari dagokionean, 1. hezitzailea egon den kasu guztietan agurra normala izan da, 2. hezitzailea egon denean berriz, azkarra. Helduak ez dio inoiz aurreratu haurrari bila nor etorriko zaion. Haurrari dagokionean, 1. hezitzailearengana ez da inoiz hurbildu, bi hezitzailearengana berriz, beti. Azken honekiko kasu guztietan mantendu du kontaktua, 1. hezitzailearekiko berriz, kontaktua eta hurbiltasuna neurri berean.

13. Umea: Haur honi bi hezitzailek egin izan dizkiote harrerak sei egunetan zehar (12. Eranskina). Bietariko batek ere ez dio inoiz aterik ireki behar izan, baina beti agurtu, heldua entzun eta galderak egin dituzte, helduarekin elkarrizketa mantenduz. 1.

hezitzailea oso kasu gutxitan hurbildu da (%25), haurra izan baita bere kabuz hurbildu dena (%75). 2. hezitzailea ordea, kasu erdietan hurbildu da haurraren gaina (%50) eta gainerakoetan ez zaio haurra hurbildu. 1. hezitzaileak ez du inoiz umea hartu eta kasu erdietan esan dio umeari agur egiteko (%50). 2. hezitzaileak, berriz, kasu erdietan hartu du umea besotan (%50) eta ez dio inoiz esan umeari agur egiteko. Helduari dagokionean, 1. hezitzailea egondako kasu gehienetan, helduak agur normala egin du (%50). 2. hezitzailearekin, berriz, harrera normala eta luzea izan da proportzio berdinean (%50). Haurrari dagokionean, 1. hezitzailearekiko kasu gehienetan hurbiltasuna mantendu du (%50) eta 2. hezitzailearekiko kontaktua eta hurbiltasuna mantendu du neurri berean. Ez da inoiz beste harrerarik suertatu eta 1. hezitzailea egon den kasu oso gutxitan soilik egon da haurra luzaroan toki batean (%25).


14. Umea: Haur honi bi hezitzaileek egin dizkiote behaketak lau egunetan zehar (13. Eranskina). Hezitzaile bietako batek ere ez dio inoiz atea ireki, baina beti agurtu, hurbildu, heldua entzun, galderak egin eta umea besotan hartu dute. 1. hezitzaileak harrera egin dion kasu guztietan bila nor etorriko den aurreratu dio, baita umeari agur egiteko ere. 2. hezitzaileak berriz, ez du irizpide horietako bat behien ere erabili. Haurra laguntzen datorren helduari dagokionean, kasu guztietan helduaren agurra azkarra izan da, hezitzailearekin elkarriketa mantendu duen arren. Helduak ez dio inoiz aurreratu haurrari bila nor etorriko zaion. Haurrari dagokionean, behin ere ez da bere kabuz hezitzaileengana hurbildu. Heldu erreferentea gelatik atera den kasu guztietan gelditu da haurra hezitzailearen kontaktuan, luzaroan toki horretan egonik. Haur honi harrera egin zaion kasu guztietan ez da beste harrerarik suertatu.

15. Umea: Haur honi bi hezitzaileek egin dizkiote harrerak grabatu ahal izan zaion zortzi egunetan (14. Eranskina). Kasu guztietan hezitzaile biek agurtu, hurbildu, heldua entzun eta galderak egin dituzte helduarekin elkarriketa mantenduz. Haur honek bikia du (16. Umea); beraz, harrera era berean egin zaie, eta hezitzaileak helduarenganako izandako jarrera berdina izango da kasu bietan. Haurrari egindakoa berriz, aldatu egiten da, biak besotan hartu ezin izan dutelako edota kasuren batean bietako bat lo etorri delako. Haur honi konkretuki dagokionean, 1. hezitzaileak umea besotan gutxitan hartu du (%33), sarritan aurreratu dio bila nor etorriko den (%83) eta egindako behaketen erdietan esan dio umeari agur egiteko (%50). 2. hezitzaileak ez du


hiru irizpide hauetako bat ere behin ere erabili. Haurrarekin etorritako helduak beti egin du agur normala (%100) eta inoiz ez dio esan umeari bere bila nor etorriko den. Haurrari dagokionez, ez da inoiz hezitzaile batengana ere hurbildu. 2. hezitzailearekiko beti mantendu izan du kontaktua heldua desagertu denean. 1. hezitzailearekiko ere, gehienetan kontaktua mantendu du (%43). 1. hezitzaileak harrera egon denean suertatu da beste harreraren bat (%29) eta kasu erdietan soilik gelditu da haurra toki batean, beste kasuetan mugitu egin baita. Hezitzaile honek harrera egin dion kasu oso gutxitan gelditu da luzaroan toki batean (%14) eta 2 hezitzaileak harrera egin dion kasu guztietan gelditu da luzaroan toki batean.

16. Umea: Haur honi 2 hezitzailek egin dizkiote harrerak grabatutako zortzi egunetan zehar (15. Eranskina). Bietako batek ere ez du atera ireki inoiz, haurraren laguntzaileak egin izan duelako; baina kasu guztietan hezitzaile biek agurtu, hurbildu, heldua entzun eta galderak egin dituzte helduarekin elkarrizketa mantenduz. 1. hezitzaileak askotan hartu behar izan du haurra besotan (%67), 2. hezitzaileak beti hartu duen bitartean. 2. hezitzaileak ez dio inoiz esan haurrari nor etorriko den bere bila ezta agur egin dezan. 1. hezitzaileak, ordea, sarritan egin behar izan ditu bi gauza horiek (%67ko portzentaian bakoitza). Haurrarekin etorritako helduak (15.umearekin aztertu dugun bezala) beti egin du agur normala (%100) eta inoiz ez dio esan umeari bere bila nor etorriko den. Haurrari dagokionez, gela barruan egonda 2. hezitzailearenganako beti mantendu du kontaktua. 1. hezitzailearenganako ere gehienetan kontaktua mantendu du (%71). 1. hezitzaileak harrera egin dionena eta oso kasu gutxitan gertatu da beste harreraren bat eta kasu guzti horietan haurra toki batean gelditu da. Oso kasu gutxitan gelditu da luzaroan haurra toki batean (%43an 1 hezitzaileak arreata egin dionean).


Haur bakoitza bere aldetik aztertzea lan honen helburua bada ere, orokorrean gelako egoera ere ezagutu nahi izan da; beraz, datu guzti horiek jaso eta interpretatu ondoren, grafiko orokorrak atera dira. Emaitza argienak lortzeko, hezitzaile bakoitza bere aldetik ateratzeaz gain, bien artekoa ere atera da (4. grafikoa). Senitartekoak eta haurrak aztertzerakoan ere, hezitzaile bakoitzarenganako edo orokorrean izandako joera ere zehaztu da (5. grafikoa eta 6. grafikoa).



4. grafikoa. Datu orokorrak: Hezitzaileak



5. Grafikoa. Datu orokorrak: Senitartekoak



6. Grafikoa. Datu orokorrak: Haurrak

4. Emaitzen eztabaida

Lan honen helburu nagusia haur eskola bateko harreraren azterketa egoki bat nola gauzatzen den aztertzea da. Horretarako, harrera bakoitzaren hiru eragileen jardueraren azterketa eginda partaide bakoitzaren jarduerak gelan nola eragiten duten behatu nahi denez, lagin osoarekin lortutako datu orokorrak eztabaidatzea ezinbestekoa da.

Aurreko atalean aurkeztutako azken hiru grafikoak kontuan izanda, parte-hartzaile bakoitzaren jardun zehatza nolakoa den ikus dezakegu. Hezitzaileei dagokienean (4. grafikoa), bien aldetiko antzekotasunak ikus daitezke. Nabarmentzekoa da oso gutxitan zabaltzen dutela atea eta ez direla beti hurbiltzen; izan ere, hezitzaile erreferentea ez da etengabeko mugimenduan egongo, haurrak berarenganako etengabeko arreta ez izatea ahalbidetuz. Gainera, haurra gelara sartu orduko, ez zaio estutzen, bere kabuz hurbiltzeko aukera behar duen denboran emanik. Hala ere, gehienetan, hurbildu beharra izaten dute; helduarekiko banaketa egin ahal izateko. Horri lotuta, hainbatetan hartu behar izaten dute haurra besotan.

Kortesiako arauak eta senitartekoarekin komunikatzeko irizpideak sarri askotan erabiltzen dituzte, errespetuzko ekintzak izateaz gain, hurbiltasuna eta haurrari

segurtasuna transmititzeko asmotan. Gainera, senitartekoak eta hezitzaileak elkarrekin izandako elkarrizketak ezinbesteko tresna bihurtzen dira haurraren egunerokoaren inguruko gorabeherak jakiteko. Datu hori senitartekoen irizpideetan ere aztertu izan da, eta izandako portzentaia kontuan izanik, benetan garrantzitsua dela ohartu gaitzke, aipatu bezala, une horretan hezitzaileak haurraren inguruko informazioa jasoko baitu.

Bila nor etorriko den aipatzea gutxitan egiten dute, eta bi hezitzaileen artean asko desberdintzen da joera hori. Aurrerapen horrek haurrari babesa eman diezaioke, heldua bueltan etorriko dela uler dezakeelako. Hainbat haurrek barneratuta izan dezakete jadanik banaketa hori, baina hain txikiak izanda, askori ohitzea kostatzen zaie. Azkenik, umeari agur egiteko esateak, banaketaren funtsa adierazten du, umeak agur eginda onartzen duelako heldua joan egingo dela. Garrantzia hori ikusita ere, ez da hezitzaileen joeran gehien nabarmentzen den alderdietariko bat, nahiko kasu gutxitan egiten baitute.

Helduei dagokienean (5. grafikoa), aipatu bezala, aspektu garrantzitsuenetariko bat, hezitzaileekin elkarrizketa mantentzea da. Ume bakoitza mundu bat bada ere, bere familia beste bat da, dudarik gabe, eta ondorioz bakoitzaren banaketaren ezaugarriak sakon behatu behar ditu hezitzaileak, erritmoa eta zereginak egokiak izan dadin. Helduen joera nagusia denbora aldetiko agurra normala egitea da, denbora gutxi ezta asko gelan igaro gabe. Beharrezkoa da denbora hori kontrolatzea, denbora gutxi egoteak ez diolako haurrari segurtasun nahiko eskainiko eta asko egoteak gain-babesa sortu dezakeelako. Azkenik, bila nor etorriko den aurreratzea oso gutxitan egiten duten jarduna da. Egia esan, badirudi ume askok ez dutela informazio horren berririk behar izaten, baina beti ere lagun diezaike.

Haurrei dagokienean (6. grafikoa), gutxik izaten dute hezitzaileengana hurbiltzeko joera, hezitzailea izaten delako hurbiltzen dena denbora bat igarota bada ere. Esan bezala, hezitzaileak inguru bat hartzen du eta bertan mantentzen saiatzen da, baina harrera egiteko, ezinbestekoa du azkenean hurbildu behar izatea.

Heldua desagertu den uneetan haurrak hezitzailearekiko mantendu duen jarrerari dagokionean, nahiko berdintsuak izan dira, kontaktua nagusitzen den arren. Honek

hezitzaile eta hurraren arteko harremana finkatzen du eta beraien artean konplizitatea sortzen lagun dezake.

Beste harreraren bat egon den kasuetan, haurrak toki finko batean mantendu dira kasu gehienetan, gutxi izan dira hezitzailea jarraitu dutenak. Hortik ondoriozta dezakegu haurrak badakiela hezitzailearen begirada beti izango duela. Azkenik, gutxi dira luzaroan toki batean mantentzen diren haurrak.

Guzti hau kontuan izanik, esan daiteke gelako egoera atsegina dela. Orokorrean hiru eragileen jardura egokia da harrera prozesuan, hurrari egokitzen erraztuz. Bi hezitzaile aztertu ahal izan dira eta emaitzek adierazten dutena kontuan izanik, biek oso antzeko jarduten dute; horrela hezitzaileen arteko harremana egokia dela eta biek batera eta irizpide berak jarraituz lan egiteko joera dutela ondoriozta dezakegu. Hau da, osatzen duten *bikote pedagogikoak* -haurreskoletan bi hezitzaile daude kopuru minimo bat duen ume talde bakoitzeko- giro atsegina sortzen laguntzen du, segurtasuna eta babesa transmitituz.

5. Ondorioak

5.1. Lanarekin lotutakoa

Aurkeztutako lanaren abiapuntu izandako behaketak, harreraren eta ekintza horren parte-hartzaileen inguruko ideia argia eta emaitza esanguratsuak eskaini dituela esan daiteke. Errealitate batean oinarritutako behaketa baten bidezko emaitzak aztertu direnez, hasieran ezarritako helburuak bete ahal izan dira. Gainera behaketa honen bitartez harreraren zehetasun txikiaz hartzeko aukera eskaini digu; hau da, haur txikien eguneroko gurasoengandik banaketa eta eskolatzea zein jardueraz, jarreraz, keinuz edo berbaz osatzen den eta hori oso informazio aberatsa da eskolatze goiztiarrari dagokionez.

Ikusi ahal izan den bezala, eragile bakoitzak ematen dituen baldintza egokiak gelako giro atsegina sortzea lortzen du, haurra bere zereginean zentratu dadin. Era honetan, ezinbesteko garrantzia hartzen du hezitzailearen jarrerak, jartzeko edo eta jarduteko erak bezala ulertuta. Honek, hurrarengan konfiatzen du, bere autonomian sinesten du, denbora eskaintzen dio gelara sartzeko, derrigortu ezta estutu gabe. Hezitzailearen

jarrera behatzen egotea da uneoro, haurrari espazioa eskainiz eta umeak egiten duen jarduera horretatik ondorioak atera eta ingurunea prestatzeko aukera emanik.

Ildo honetatik ikus daitezke beste harrera kasu batzuetan gelako hurrek hartzen duten jarrera. Izan ere, ulertzen dute hezitzailearenganako distantzia zein den, segurtasuna eta sortzeko eta pentsatzeko espazioa eskaini baitie hezitzaileak.

Grabaketak egindako egunetan, kanpo faktoreen eragina ere ikusi ahal izan da. Esaterako, presaka zetorren helduak edo haurrak arazo txikiren bat izateak, harreran eta umearen jarreran aldaketa eragiten zuen. Baina, hezitzailearekin sortutako harremanak, konfiantza eman eta bere babesean geldituz, lasaitasunez gelditzea ahalbidetzen zion. Horrela, Pikler-Lóczy metodologiako printzipioei jarraituz, eskaintzen zaion zaintzak, konfiantza garatzen lagunduko dio.

Estos momentos le ayudan a sentir que no está solo, que está en un entorno seguro, porque puede contar con el adulto. Así se desarrolla y fortalece la confianza del niño en el adulto. Si la cuidadora es capaz de confiar en el niño, ha dado un gran paso en su identificación con los pensamientos piklerianos. Fruto de la autonomía y de la libertad del niño, de la confianza y la atención del adulto, el niño tendrá sus propios proyectos. (Kelemen, 2017, 39.or)

Bide horretatik, aipatzekoa da, hezitzaileak helduarekin duen harremana. Bodenek (2017) aipatu bezala, hauen artean sortuko den harremana, erreferentzia izango da haurrak hezitzailearekin harremana sortzeko. Era honetan, ikusi ahal izan da, harreman honi garrantzia ematen zaiola, hezitzaileak familiarekin duen harremana haustu gabe; izan ere, familiaren parte izateak jarraikortasun sententzia ematen dio gertatutako banaketa horri (Falk, 2018). Jarraikortasun horrek haurrari segurtasun afektiboko egoeran egoteko aukera ematen dio, kanpo munduko ezagutzari irekita egonik. Honela, mundua ezagutu eta pertsona eta objektuen arteko harremanak ezar ditzake.

Egindako behaketak bizitzako lehen hiru urteen barnean kokatzen direnez, eta adin horrek garapenean duen eragina kontuan izanik, etorkizunean adin horrekin jasotakoaz ez bagara oroituko ere, eragina izango du, guri eskatu izandakoaren antzekoa eskatu nahiko diegulako, umetxoaren independentzia adina aurreratuz (Godall, 2012).

Prozesu guztian zehar hezitzaileek arreta berezia jarri izan dute gelan eskaini duten materialetan eta hauen antolaketan. Izan ere, behaketetan harrera grabatzeaz gain, hezitzailearen inguruko beste alderdi batzuk aztertu ahal izan dira, eta noizean behin, hurrek erabilitako materiala berrantolatzen dutela ikusi ahal izan da. Era honetan, haurren jarduera autonomoa ahalbidetzeaz gain (Libertiny, 2018), giro atsegina sortu dute.

Eman diren irizpide guzti horiek betetzeak, haurrak heldu baten erabateko presentzia edo hurbiltasunari uko egitea ahalbidetzen du, zaintza behar ez duen uneetan ere bere kabuz egoten jakingo du (Borbely, 2016) eta egokitzapen prozesuari lotuta, ulertuko du banaketa gertatu behar dela. Izan ere, hasieran aipatu bezala, guraso-umearen artean gertatzen den banaketak garrantzia baitu.

Haurra protagonista izanik, berarengan zentratutako zaintzak eskaintzea, ez dakar gizarteko balioak ez transmititzea. Aitzitik, emaitzetan ikusi ahal izan dugun bezala, hezitzailea gizarteko balioen sistemak, arauak, ohiturak eta debekuak transmititzeaz arduratzen da (Falk, 2018), kortesiazko arauak, agurtzea, elkarrizketa eta abar ia erabatekoa izanik. Horrez gain, haurrari behar denean arauak eta mugak ezartzen zaizkio, baina ez era bortitz batez, baizik eta lasai eta errespetuz.

Era horretan, Emmi Piklerrek zaintzak eta hezkuntza sinonimo bezala erabiltzea ez da kasualitatea (Herrán, 2014); hots, bizitzako lehen urteetan zaindu bitartean hezten ari baikara (Kálló, 2017). Horrela une intimoak eta hezkuntza elkartzuz, garapenaren eta pertsonalitatearen oinarriak sortzen dira. Une horretan gorputza da harremanaren abiapuntua, eta bera menderatzen, heltzen laguntzeko sartzen da heldua haurrarekin kontaktu intimoan. Gorputzean izandako kontaktu guztiak, sekula zuzenak ez direnak, baizik eta erdi bitarteko zerbait dagoela beti: mukizapia, toallita, pixoihala, eta abar, tresna kulturalak izateaz gain, informaziorako elementu izan dira, gainera, helduaren inguruko datuak eta erlazio sistema eskaintzen dizkio.

Solo tendrá un efecto educativo, en el sentido real de la palabra, aquel cuidado que verdaderamente forme la personalidad, en el que el niño desde la edad más temprana esté en permanente diálogo con el adulto, que da tiempo al niño para que sus observaciones, preguntas y demandas puedan llegarle, y más tiempo aún para que el niño pueda responderle según el modo apropiado a su edad, con sus gestos, su voz o señalando. (Kálló, 2017, 19.or)

Beraz, hezitzaileak aurreiritzirik gabeko eta haurren nortasunaren araberako zaintza-heziketa eskaini beharko du; honela, erreferentziazko heldu batekin harreman egonkorra eta ziurra ezartzen duenean -denboraren poderioz eta hura ondo ezagutuz-, gustura sentitu, harmonian bizi eta autorregulatu egiten da (Herrán, 2014). Baliteke, ezinbestean, hezitzailez aldatu behar izatea. Horretarako, umea prestatu garaiz adieraziz, estresa ekarri diezaiokeen faktore oro saihesteko. Honen bidez, umetxoan harremanetan egonkortasuna sustatu nahi da (Herrán, 2014).

Lortutakoa kontuan harturik eta etorkizunari begira, ikerketa aberastu ahal izateko, harrerak denbora luzeagoaz eta ikasturteko data desberdinetan aztertzea proposatuko nuke. Era berean, prozesuko partaide nagusiak aztertu badira ere, hauen testuingurua ezagutzea baliagarria litzateke. Horrela, haur bakoitzaren errealitatea ezagutuz, haurreskolan ematen den banaketa eta gainontzeko prozesu guztia xehetasun gehiagoz ulertuko litzateke eta baita harrera ahal den neurrian haurraren ezaugarrietara gehiago egokitu ere.

5.2. Pertsonalak

Egindako behaketa eta ikerketa alderdi pertsonalera eramanez, esango nuke lan honek hezitzaile izateko lanbiderako asko eskaini didala. Egindako behaketak harreraren zentratu bada ere, behaketak egiterakoan haurren gaitasun eta hezitzailearen inguruko beste hainbat alderdi ezagutzeko balio izan dit. Horrela, graduan zehar jasotako informazio teorikoarekin lotura sendoak egin ahal izan ditut.

Hasiera batean, lana planteatzerakoan ikuspegi oso orokor bat neukan, hezitzailearen inguruko jardunbide asko aztertu beharko nituela pentsatzen nuen lana osatzeko. Baina lan hori orokorregia izanik, gai zehatz batean zentratu beharra neukan. Beraz, hezitzaileak era aktiboan parte hartzen duen kalitatezko zaintzak zeintzuk diren ikusiz eta interesen arabera erakargarriena irudituz, harreraren inguruan lan egitea erabaki nuen.

Lanari hasieratik aurkitu diot helburuak betetzeko aukera, baina lana egiterako momentuan askotan sentitu naiz galduta, nondik norakoak ulertu gabe. Behin lana bukatuta, hasierako ideia bueltatu naiz, ikerketaren zentzua eta helburuak betetzeko aukera paregabea izan dela ohartuaz. Konkretuki, lanaren ondorio pertsonal

garrantzitsuena hezitzaile bezala jarduteko irizpide batzuen ikusmoldea izan da. Haurra da gure lanaren protagonista, ez gu, eta bere garapenaren onurarako aukerak eskaini behar dizkiegu. Gu hartzaroaren profesionalak gara. Horrela, egiten dugun jarduera eta ekintza bakoitzak haurraren hezkuntzan, eta etorkizunean, garrantzia izugarria du.

Lanean zehar aztertu ahal izan den bezala, hurrek badituzte izugarriko gaitasun batzuk, uste baino autonomoagoak dira, baina testuinguru egokia eskaini beharko zaie. Bide horretan, haurrak gero eta txikiago eskolatzen direla kontuan izanik, haur eskoletako hezitzaileak eginkizun oso garrantzitsua dute. Horrela, eremu segurua ziurtatzeko helburuarekin, hezitzailearekin sortuko duten harremana ere garrantzitsua izango da. Hain txikiak izanda, zaintza uneek garrantzi handia izango dute, baina ikusi ahal izan dugun bezala, goizero emanten den harrerak ere paper garrantzitsua jokatzeko du. Ondorioz, harrera- beste guztiak bezala- egunero zaindu beharreko unea da, umeari hezitzailearekin harremana sortu eta mantentzeko balio izango baitio, eta beraz, berarekin eta eskolan, kulturaren lekuan gustura egotea ahalbidetuko dio.

Erreferentziak

- Anguera, M. T. (2003). La observación. In C. Moreno Rosset. (Ed.), Evaluación psicológica. Concepto, proceso y aplicación de las áreas del desarrollo y de la inteligencia (271-308). Madrid: Sanz y Torres.
- Anguera, M. T. (2010). Posibilidades y relevancia de la observación sistemática por el profesional de la psicología. Papeles del psicólogo, 31 (1), 122-130.
- Balaban, N. (2000). Niños apegados, niños independientes: orientaciones para la escuela y la familia (Vol. 43). Narcea Ediciones.
- Boden, M. (2017). La acogida del niño y de su familia. Herstal, una escuela infantil municipal. RELAdEI. Revista Latinoamericana de Educación Infantil, 5(3), 65-73.
- Borbély, S. (2016). El dilema de la autonomía y el apego en las familias de hoy. Actualización del eterno debate sobre los factores del desarrollo del niño desde la perspectiva pikleriana. RELAdEI. Revista Latinoamericana de Educación Infantil, 5(3), 54-61.
- Chokler, M. (2006). Los organizadores del desarrollo. 2018-05-01ean berreskuratua hemendik:
<http://www.ifra.it/idee.php?id=11&titolo=Los%20Organizadores%20del%20Desarrollo&autore=Dra.%20Myrtha%20H.%20Chokler>
- Falk, J. (2018). Claves de la continuidad en la educación de los niños que viven en una casa cuna. In E. Herrán (Ed.) Claves de la educación Pikler-Lóczy (163-178). Budapest: Realpress.
- Febrer, I.; Jansà, E. (2011). Empieza la escuela infantil, un proceso de familiarización. Infancia: educar de 0 a 6 años, (129), 10-16.
- Godall, T. (2012). Del ConTacto con y sin Tacto. Aula de infantil, (66), 15-19.
- Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa. (2010). Harrera. 2018-04-19an berreskuratua, hemendik: <http://www1.euskadi.net/harluxet/>
- Herrán, E. (2014). Pikler-Lóczy Eredua: zaintzea denean hezkuntzaren abiapuntua. Tantak, 26(2).
- Herrán, E. (2018). Sarrera. In Wallon, H. (2018). Haurtzaroaren psikologia. E. Herrán (arg). Bilbao: Euskal herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Herrán, E., Orejudo, S., Martínez de Morentin, J. I., & Ordeñana, M. (2014). Actitudes docentes y autonomía en Educación Infantil 0-2: Un estudio exploratorio en la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV). Ministerio de Educación.
- Kálló, É. (2017). Sobre la unidad de los cuidados y la educación, una vez más. RELAdEI. Revista Latinoamericana de Educación Infantil, 5 (3), 15-20.

Kelemen, J. (2017). El trayecto profesional de una cuidadora pikleriana. RELAdEI. Revista Latinoamericana de Educación Infantil, 5(3), 36-40.

Libertiny, Z. (2018). Sobre el trabajo en el Espacio de Padres y Niños Pikler de la Casa Pikler de Budapest. RELAdEI. Revista Latinoamericana de Educación Infantil, 5(3), 47-53.

Tardos, A. (1992). Autonomía y/o dependencia. Infancia: educar de 0 a 6 años, (15), 4-9.

Tardos, A. (2014). Anna Tardos, elkarrizketa. Hik Hasi, 192, 17-23. (18. orr.) 2018-04-02an berreskuratua hemendik: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20141101/anna-tardos-hungariako-pikler-loczy-institutuko-zuzendaria>